

7.FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Enpresa aurrera eramateko, hainbat baliabide behar ditugu. Hona hemen gure proiektuak funtzionatzeko ezinbestekoak direnak:

Baliabide fisikoak

Produktu fisikoak behar ditugu, hala nola arropa, teknologia eta altzairua. Horrez gain, lanerako gela, ordenagailuak eta telefonoak ere ezinbestekoak izango dira.

Beste baliabide bat

Ideiak eta ezagutzak funtsezkoak dira. Gure patenteak hobetuko ditugu eta marka garrantzitsuekin kontratuak lortuko ditugu. Honek gure enpresari balio handia emango dio.



Giza baliabideak

Pertsonak dira gure indarra. Taldean lan egingo dugu, eta bakoitzak bere trebetasunak erabiliko ditu. Diseinatzaileak, informatikan adituak eta salmentetan esperientzia duten pertsonak osatuko dute gure lan taldea. Taldeak gure enpresa indartsuagoa bihurtuko du.

Finantza-baliabideak

Dirua behar dugu negozioa martxan jartzeko, mantentzeko eta aurrera eramateko. Hasieran, dirua produktuak erosteko erabiliko dugu, baita webgunea sortzeko ere. Gure lehen aurrekontua horretarako izango da.

Beste baliabide batzuk

Negozioa aurrera eramateko webgune bat sortuko dugu, bertan produktu guztiak prezioekin jarriko ditugu. Ordainketa sistema segurua izango dugu, PayPal edo Bizum bidez. Gainera, sare sozialak erabiliko ditugu gure enpresa zabaltzeko eta bezero gehiago lortzeko. Talde handi bat izango dugu, lana ondo eta azkar egiteko. Formazio ona emango dugu eta giro atsegina sortuko dugu bezeroekin eta lankideekin.